

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xanti Lasarte Zugasti

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1925-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Goiburu auzoko Aierdi baserrian jaio zen. Bi bizitzako etxea zen Aierdi: batean izeba-osabak bizi ziren eta bestean 4 seme-alabako familia gurasoekin. Aita bertakoa zuen eta ama Errekaldekoa. Xoxokako eskolan ibili zen auzoko eta inguruetako hurrekin batera 6 urte zituenetik 12ra arte. 24 urte egiteko zituela ezkondu zen [Angela Garmendia](#)rekin bere jaiotetxera. Geroztik, hainbat lan egin badu ere etxetik kanpo (txerri-hiltzen baserri askotan, hala nola), baserriko lanetan aritu behar izan du erabat. 10 seme-alaba izan ditu eta egun Urnietan bizi da.

Zintak

URN-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2009-11-26
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aierdi baserriaren egitura, lehen

- **Erref:** URN-002/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Aierdi baserriaren egitura lehen nolakoa zen azaltzen du.

2. Gerra ostean, garia egiten zuten

- **Erref:** URN-002/005

- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garai hartan, gaztaina asko zen. Garia ere egin zuten gerra ostean, harekin irina egin eta ogia lortzeko. Garia nola lantzen zuten azaltzen du: erein, ebaki, bildu, txorrokak egin, jo...

3. Auzokoen artean, harreman handia lehen

- **Erref:** URN-002/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lehen, auzokoen artean harreman handia zegoen. Auzolana egiteko, denak elkartzen ziren. Gaur egun, elkartasun hori asko galdu da.

4. Garai batean, taloa nagusi

- **Erref:** URN-002/012
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:18:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Taloa jaten zuten garaian, ogi gutxi jaten zen. Taloa esnetan sartzen zuten. Ohitu egin ziren taloa jaten. Eskolara joaterako, zer gosaltzen zuten. Lehen, diru gutxi izaten zuten.

5. Erdaraz hitzik ez zekiela, eskolan erdaraz egin behar

- **Erref:** URN-002/017
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan, erdaraz ikasten zuten, maistra erdalduna baitzen. Komeriak izan zituzten hura ulertzeko; eta, azkenean, Xantik ez zuen erdara ikasi. Bazen, ordea, beste ikasle bat euskaraz hitzik ez zekiena; eta, harekin ibiltzeko, besteak ikasi zuten euskaraz.

6. Arbela, klariona eta lapitza

- **Erref:** URN-002/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan, klariona zuria erabiltzen zuten arbelean idazteko. Bakoitzak bere arbela ere izaten zuen mahaian. Hartan idazteko, lapitza izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eskola horrea ibiltzen giñan garaiyan, kleriona esaten zitzaiyon zuri bat, oain'e oaindik'e badira hoik, garai haitakok. Ta harekin enziarrun aitzen giñan. Enziarrua haundiya zan, metro t'erdiko ikearri hola, han. Ta maistrak ifingo zizun ze jarri, ta ateratzeko hua, ta danan bistan atera bihar izaten [...]. Ni han hasi baiño lehen, ateria nakan hua. [...] Baiño, ta bestia izaten zan pizarra: lau... ispilluba nola izaten da? Ispilluba. Estilo igual-iguala, pizarra. Ta harentzako lapitz-harriya, harriyak iten giñun lapitza. Harriya hemen atera, lapitz-harriya du izena beak'e. Ta hua bezperan zeatu, biribildu, ta dotoriak itten giñun, horko mutillak eta biyok.

- A bai e? Ta ze harri klase zen hori ba?

- Hoi hemen bertan da. Ta ez da hargorriya ez da, ta karaitza're ez da, baiño lapitza esaten zaiyo. Beak izena hala du, harri-lapitza. Ta harekin itten giñun. Ta danak jende beira, guk harekin eskribitzen pizarrian earki, taka-taka-taka-taka. Ta geo beste batzugin itten ta're aitzen giñan.

- Hara, berriz.

- Holaxe.

7. Elur-zuloak eta ikatz-txondorak

- **Erref:** URN-002/022
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorak

Laburpena:

Mendian, elur-zuloak zeuden. Haietan, elurra sartu, izotza egin, eta Donostian saltzen zuten. Gerora, ikatza egiten hasi ziren mendian; garai hartan, dena pagoa eta haritza zen. Txondorak egiten zituzten, eta ikatz ederra ateratzen zuten handik. Askok ateratzen zuten bizibidea handik.

8. "Harrapazka eguna"

- **Erref:** URN-002/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:35:18. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

"Harrapazka eguna" irailaren 10ean ospatzen zen. Egun ederra izaten zen hura. Orduko ohiturak aipatzen ditu. Hurrengo egunean, zalapartak eta komeriak izaten ziren, batak besteari lapurtu ziolakoan.

9. Usurbilgo larra-behien zorigaitza

- **Erref:** URN-002/032
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Usurbildik larra-behiak ekartzen zituzten uda pasatzera. Gerra bukatu eta berehala, behiak beraien kontura Urnietara abiatu, eta trenak mordoa harrapatu zituen.</p>

Transkripzioa

- Baiño Usurbiltikan etortzen zian mendi honta larra-behiyak. Usurbildik honea udara pasatzea ekartzen zittuen. Eta gerra pasa, ta bukatu ta seittun izango zan, bate gizonik be behi hutsak abittu Usurbiltik, ta Urnietako karrillea etorrita, karrillea sartu dia, ta trenak hor harrapatu zittun mordua, hamar-hamabi eo, hor. Hoi gerra bukatu zan garai hartako kontua.

- A ze galera!

- Hua're... Bai. Haik beren garaiya udaberriya somatu zuenian, iñor be martxa aurrea, ta gaizki atea zitzaiyen. Hoi nik oain hamabi urte banitun nik, ordun, hamar-hamabi o, hor.

10. Txerri-hiltzaile izandakoa

- **Erref:** URN-002/034
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:52:17. **Bukatu:** 00:54:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerri-hiltzen aritzen zen Goiburun, etxez etxe. Lehenago, aita aritzen zen lan horretan, eta hark erakutsi zion lanbidea Xantiri. Gerra ostean, txerria hiltzeagatik ordaindu egin behar izaten zuten; orduko kontuak. Txerri-hiltzaile izateagatik, ez zuen kobratzen; baina txerri zatiak ematen zizkioten trukean.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com